

## 1. SARRERA

### *Norberaren garapenerako hezkuntza kontzeptuaz*

Hezkuntza ereduaren inguruko hausnarketa eta proposamen espezifikoen ondorioz, kontzeptu berriak asmatu ohi dira. Era honetan, mugimendu feministak hezkuntza sistemari eginiko kritikaren eta horrekiko planteatutako alternatibaren ondorioz, “hezkidetza” kontzeptua sortu da, gizon eta emakumeen arteko parekidetasunerako hezkuntza irizpideak biltzen dituen planteamendu integrala adierazteko. Era berean, ingurugiro hezkuntza, garapenerako hezkuntza edota kulturarteko hezkuntza bezalako izendapenak sortu dira.

Hezkuntza prozesua osotasun bat da eta elementu ezberdinek elkar eragiten dute. Premisa hori kontutan hartzen badugu, aipatutako kontzeptuak sortzea positiboa da, hezkuntza praktikari buruzko hausnarketa egin eta aldaketak eragiteko gaitasuna duten neurrian. Mota honetako planteamenduei esker, hezkuntza jarduera berritzen joan da eta ikuspegi akademizista soiletik hezkuntzaren dimentsio osoa (kontzeptuetaz gain, baloreak; agerizko curriculumaz gain, ezkutukoa; e.a) kontutan hartzera igaro da.

Guk “norberaren garapenerako hezkuntza” kontzeptua erabili dugu, norberaren garapen integralerako garrantzitsuak diren eta normalean bakarka lantzen diren gaien inguruko trataera hezitzaileari buruz hitz egiteko: sexualitatea, osasuna, kontsumoa, drogak, aisialdia... Esan bezala, hezkuntza jarduera osotasun bat da eta gai guztiak elkarloturik doaz. Guk garapenerako hezkuntzaz mintzatzen garenean, pertsona bezala garatzeko beharrezkoak diren elementu batzuk jorratu nahi ditugu, aurretik aipatutako kontzeptuetan barneratzen ez direnak. Eta kontzeptu baliagarria izango da baldin eta gai horien inguruko hausnarketa integrala egin eta proposamenak jorrazteko baliagarria baldin bada. Hala bedi!

### **Norberaren garapena egungo testuinguru sozialean**

Gaur egun, Euskal Herriko herritarrek eta zehazkiago gazteek pertsona bezala osoki garatzeko aukera gutxi eskaintzen dituen testuinguru sozialean bizi dira. Azken garaietan egondako aldaketen ondorioz, gazteria hainbat fenomeno kezkarri pairatzen ari da: langabezi tasa altuak, etxebizitza lortzeko zailtasunak, kontsumoan oinarritutako aisialdi ereduak, sexu bazterkeriak, arazo etnikoak, politikoak, hezkuntzari dagozkionak... Aldagai horiek guztiak kontuan hartuta, esan daiteke euskal gazteak bizi-baldintza kaxkarrak pairatzen dituela. Errealitate hau, Euskal Herrian ez ezik, Mendebaldeko nazio eta herrialde ezberdinetan ere ematen ari da.

Testuinguru honetan, hezkuntzaren xedea ez da izan behar, besterik gabe, “pertsona gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadikide gisa” garatzea. Izan ere, hezkuntzaren xedea modu horretan formulatuta, dagoena berproduzitzea beste eginkizunik ez luke hezkuntzak. Eta, aipatu bezala, asko dago aldatzeko egungo jendarte ereduak. Beraz, beste definizio hau hobetsiko genuke guk: hezkuntzaren xedea, pertsonari errealitatea ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematean datza, izadikide gisa, gizartekide gisa eta gizabanako gisa osoki garatu dadin.

## 2. “NORBERAREN GARAPENERAKO HEZKUNTZA” HEZKUNTZA SISTEMAN

### Zehar-lerroak

Dela jendarte mailan egondako aldaketa sakonen aurrean erantzuteko behararengatik, dela baloreei garrantzia eman dioten ikuspegi pedagogikoen eraginagatik, aldaketa sakonak egon dira hezkuntza eremuan. Aurretik eskolako curriculum tradizionaletan lekurik ez zeukaten gaiak (honek ez du esan nahi sekulan lantzen ez zirenik, baizik eta horien trataera salbuespenezkoa izaten zela), pisu handia hartu dute: osasunerako hezkuntza, sexu-hezkuntza, aisia, drogak, ingurugiroaren hezkuntza, hezkidetzak, kontsumitzeko hezkuntza, elkartasuna... Afera hauek guztiak zeharkako alorrak edo zehar-lerroak bezala bataiatuak izan dira.

Zeharkako izaera horrek dimentsio global bat ematen die gai horiei; hots, ikasgai guztietan gai horiek jorratu behar dira, baina baita ikastetxeko eguneroko bizitzan ere. Esan dezakegu planteamendu honek irakaskuntza-ikaskuntza aberatsagoa bilakatu dezakeela. Beste auzi bat da ea zehar-lerro horiek praktikan behar bezala garatu ote diren ala irakasgaien ohiko eskemaren “gehigarri” huts izan diren. Ziurrenik, balantzea ezberdina izango da ikastetxek ikastetxe.

### Zehar-lerroetatik hezkuntza kompetentziara

Euskal Curriculumean norabide berean beste urrats bat ematea proposatzen da, “hezkuntza kompetentzien” planteamenduaren bidez. Honen arabera, beharrezkoa da gizakia izadikide eta baita gizartekide bezala hezkuntzaren maila gorena lortzea, pertsona bezala subjektibotasunaz eta autonomiaz kontzientzia hartzeko eta gizartekide bezala erabakiak hartu ahal izateko; ez baitago gizabanakorik gizartekiderik gabe. Horrela, esan dezakegu eskolaren eginbeharra bizitza guztirako erronka den horretarako prestatzea dela. Gazte batek prestaketa hau izango du baldin eta pentsatzeko, ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko,.... gai baldin bada.

Era honetan, lehen irakasgaietik zehar-lerro zena, hezkuntza prozesuaren ardatz izango da eta irakasgaiak ardatz hori garatzeko “zehar-lerro”. Aldaketa honako eskema honetan labur bildu daiteke:


*Irakaskuntza tradizionala*



*Zehar-lerroen proposamena*



*Euskal Curriculumaren proposamena*



### Hezkuntza kompetentziak eta eguneroko praktika

Inork ez du zalantzan jarriko, maila teorikoan, kritikotasuna, elkartasuna, tolerantzia, autonomia, bakea edota euskalduntasuna gure hezkuntza eremuan txertatu behar ditugun baloreak direnik. Alabaina, kontutuan hartu behar dugu gure jokaera eta eguneroko jarrerak ditugun baloreen ondorio direla. Eta balore horiek dira gure jokaeren bitartez transmititzen ditugunak. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ez dago hemendik kanpo, horrela, esan daiteke hezitzailea baloreen igorle zuzena dela eta bere jokaerak eta ikasleengan eragiten dutela. Jokaera eta jarrera horietatik eratorritako baloreak izango dira ikasleek jasoko dituztenak, eta ez

programaturiko, idatzitako, balore edo jarrerak; hots, pentsatu, esan eta adierazten ditugun baloreen artean koherentzia egon behar du. Hitzak ekintzez bete beharko ditugu.

### **Eskola, familia eta herri eragileak**

Dena den, eskolan ahalik eta planteamendu osatuena egiteaz gain, bada hausnartu beharreko beste auzi bat, eskolaren eginkizunari dagokiona, hain zuzen ere. Familiak gero eta ardura gutxiago hartzen du bere gain eta uzten dituen ardura hauek hezkuntzaren beste esparruaren gainean erortzen dira, hots, eskolaren gainean. Baliteke hau gertatzea eman den baloreen aldaketa azkarrengatik edota baliteke, gizartearen aldaketa konplexuak ikusita, gomendagarritzat jotzea familiaz kanpo ere auzi hauek guztiak jorratzea. Edozein kasutan ere, askotan badirudi eskolaren gainean erantzukizun handiegia jartzen dela, gizartean ematen diren arazo guztiak konponduko duen formula magikoa edukiko balu bezala. Eta eskolak asko egin dezake, baina ezin dezake guztia egin.

Norberaren garapena lortzeko, eskolan ahalik eta planteamendu osatuena egiteaz gain, beste eremuek ere beren ardurak hartu behar dituzte:

- Alde batetik, familiek beren ardura hezitzaileari heldu behar diote. Askok zailtasunak izan ditzakete belaunaldi berriaren kezka, arazo eta beharrak ulertu eta horien aurrean erantzuteko, lehen aipatu dugun bezala aldaketak ziztu bizian gertatzen ari baitira. Horrengatik, beharrezko da familien hezkuntza beharrak ere aintzat hartzea, beraiek ere hezkuntza prozesuan subjektu izan daitezten.
- Beste alde batetik, herri eragileek ekarpen garrantzitsua egin dezakete. Izan ere, herri eragileak aitzindari dira aldaketan dagoen errealitatearen gaineko irakurketak egin, irizpideak finkatu eta proposamenak egiteko orduan. Sexualitatearen, drogen edota aisialdiaren inguruan esperientzia handia dute herri eragileek eta esperientzia horretaz baliatu behar du hezkuntzak, bere adierarik zabalenean.

### **3. “NORBERAREN GARAPENERAKO HEZKUNTZA” EUSKAL CURRICULUMEAN**

Esan daiteke Euskal Curriculumaren diseinuak berak norberaren garapena sustatzeko antolatuta dagoa. Neurri handi batean, bere abiapuntua norberaren garapenerako hezkuntza da, pertsona gizabanako gisa, gizartekide gisa eta izadikide gisa garatuz. Hiru dimentsio hauek elkarlotuta daudenez, esan daiteke hezkuntzaren funtzioa hiru dimentsio horiek garatzea izango dela, horrela norberaren garapena osatzen joango gara, gizaki autonomoagoa, kritikoagoak,... eginez. Zelan lortuko dugu hau guztia? Pentsatzen eta ikasten ikasiz, komunikatzen ikasiz, elkarrekin bizitzen ikasiz, norbera izaten ikasiz eta baita ekiten ikasiz ere. Hau da, euskal curriculumak proposatzen dituen konpetentzia orokorretatik ikasiz. Ikas arlo guztiak konpetentzia konpetentzia horien zerbitzura egongo baitira. Hala ere, eta lehen aipatu bezala, beharrezkoa da eraldaketaren ikuspegia ongi txertatzea. Jendartera egokitze baliabideak ematea baino, jendartea berrasmatzeko baliabideak eman behar dizkie hezkuntzak belaunaldi berriei.

Testuinguru honetan, beharrezkoa deritzogu honako gai hauetan sakontzeari:

1. Sexu-hezkuntza
2. Drogen inguruko hezkuntza
3. Osasunerako hezkuntza
4. Aisialdirako hezkuntza

Gai hauek, norberaren garapenerako funtsezkoak izateaz gain, herri mugimenduaren agendan egon dira eta egun ere badaude. Ildo honetan, eta aurretik aipatutako irizpideari jarraiki, herri eragileek zer esan handia dute gai horien inguruko irizpide hezitzaileak finkatzeko orduan nahiz heziketa prozesuan laguntzeko orduan.

Esan dugun bezelaxe herri eragileek edozein gazteren heziketa prozesuan funtzio garrantzitsua daukate, zeresanik ez eskolen funtzioari buruz. Baina hor dugu familia, azken finean izakei bizidun baten heziketa prozesuan ingurune hurbilena eta garrantzitsuen. Zer da familia? Hauxe

da hausnarketa eta lanketa honen ondorioz plazaratzen dugun galdera, bada garaia familiaren esanahia berdefinitzeko eta horretaz luzaroan hitz egiteko.

### 3.1 SEXU HEZKUNTZA

Egun bigarren hezkuntzako ikastetxe bateko ikasleei intereseko gaien zerrenda bat egitea eskatzen baldin badiegu, seguruenik sexualitatea hautatuen artean egongo da. Euren adinarekin bat datorren kontua da hau, oraindik eurei buruz, munduari buruz, ezezagunak dituzten alderdietako bat da eta. Era berean, esan daiteke ongizate orokorra lortzeko beharrezkoa dela sexu hezkuntza aproposa. Ongizate orokorrari buruz ari garenean, ongizate físiko, psikiko eta sozialaz ari gara, hots, gizakiaren sexualitatea ulertzeko eredu bio-psiko-sozialaz.

Sexu-hezkuntza honako bi ardatz hauetan finkatu behar dugu:

1. Informatiboa: kontzeptu fisiko eta soziala.
2. Orientatiboa: nola lortu bizi kalitate hobea.

Helburua, ohitura eta jarrerren garapen jakin bat lortzea da, ongizate orokorra lortu ahal izateko, ez bakarrik maila pertsonalean baizik eta sexualitatearen eta osasunaren aspektu sozialaren balorapenean ere; beti ere ongizate pertsonaletatik abiatuta eta gizarte ongizatea lortu arte. Hau lortzeko argi izan behar dugu beharrezkoak direla eduki kontzeptual eta prozedurazko batzuk lantzea.

Sexualitateaz ari garenean, ez gara soilik haurdunaldien prebentzioen, sexu bidez kutsatu daitezkeen gaixotasunen edo “egiten den sexuaren” inguruan ari. Ez dugu sexua bakarrik heterosexualen aukera bat bezala ikusi behar, neska eta mutilen arteko homosexualitateari buruz ere hitz egin behar dugu. Ez da soilik gaixotasunak ekiditeko planteamendua, baizik eta sexualitate aberatsa eta pertsonarteko harreman intimoen gaineko ikuspegi positiboa lortzeko planteamendua ere. Errealitate sexuala jakin-minaren mundua da, azalpen eta galdera askoren erantzun. Hots, sexu-hezkuntza, sexu ekintzen eta hauen ondorioen jakituria izan beharko luke.

Zelan landu beharko litzateke hezkuntzan (gazteekin) sexualitatea? Dakigun bezala, gazte eta nerabeek erabaki asko eta garrantzitsuak hartzen dituzte, erabaki hauek hobetu daitezke gazteak ongi informaturik baldin badaude, hots, baliabide ezberdinak emanaz, bere burua ezagutzen baldin badute eta bizi diren gizartea ezagutzen baldin badute.

Baina, ikasleek hezkuntzan zelan parte hartu behar dute? Aukeratzen diren lan metodologietan gazte eta nerabe hauek agente aktiboak izan behar dute. Beraz, hezkuntza afektibo-sexualaren funtzioa, prozesuan zehar gizonetzkoak nahiz emakumezkoak munduan egoteko era eraiki eta garatu behar diren elementuak agerian jartzea da.

#### a) Sexu-hezkuntza integralaren ezaugarriak

- Sexu-hezkuntzak pentsamendu kritiko baterantz bideratu behar gaitu, sexualitatearen inguruko iritzi positiboak sortuz.
- Prozesu bat finkatu non pertsonak jakingo duen bera gizaki sexuduna eta sexuala dela, bizitza osoan zehar.
- Sexu-hezkuntzak pertsonen beren gorputz sexuatuak era egokian integratzen lagundu behar die, gizon edo emakume izateko era pertsonala kritikoki garatzen lagunduz.
- Sexu-hezkuntzak pertsonen eskubideen artean, izaki bizidunen errespetua landu beharko luke genero rolen garapenari esker.
- gorputzaren inguruan autoheziketa lanketan lagundu beharko luke
- Jarrera sexual askea lantzerantz bideratu behar gaitu era arduratsu, kontziente batean, bai norberarekiko eta baita besteekiko ere
- Komunikazioa landu bikote eta familia ingurunean, alde batera utzita sexua eta adina.
- Familia planifikazioaren inguruan jarrera arduratsua eta elkarlana landu: seme-alaben heziketa, antisorgailuen erabilpena,...

- Sexu bidez kutsakorrek diren gaixotasunen inguruan lanketa erabaki garrantzitsuak hartu ahal izateko
- taburik gabeko hezkuntza izan behar du
- gaia naturaltasun osoz tratatu beharra dago
- familiak bere gain duen ardura hartuta hezkuntza integralago bat ere lor daiteke
- esperientzia
- gizarteko eredu ezberdinak ezagutu beharra daukagu

Neska-mutilek behar adina baliabide izan behar dute beren behar afektibo eta sexualak kudeatzeko eta izango dituzten lehen esperientzi horiek asebetegarriak, arduratsuak eta arriskurik gabekoak izateko.

Hau guztia aurrera eramateko, behar-beharrezkoa da ikasleak parte hartzaileak izatea eta horretarako aurretik landu beharreko beste gai batzuk ere badaude, hala nola, komunikazioa. Ikasleek beraien nahiak, galderak edota iruzkinak adierazten, eta baita ikaskideenak ulertzen ere, jakin beharko dute. Hau aurrera eramateko, beraien buruaren ikuspegi erreala eta positiboa izan behar dute, horrela ondokoa ere ulertu ahal izateko.

Behin beraien burua ezagututa, beraien beharrak eta beraiek baloratzen dutena, hots, baloreak, ezagutuko dituzte eta baita hauen aurrean hartu beharreko aukera ezberdinak ere. Orduan, sexualitatea edo beste edozein gai bat lantzen has gaitezke. Aurretik esan dugun bezalaxe, sexualitatea gure gorputza osotasunean (gorputza, psikologikoa eta soziala) hartzen duen dimentsioa da. Sexualitatea edozein adinetan komunikazioa, maitasuna,... bizitzeko era bat da.

## **b) Hezkuntza sexualaren helburuak**

-Norberaren sexuaren ondorioz munduan emakume edo gizon bezala egoteko modua garatzea.

- Ikasleari bere gorputza eta gorputz irudia onartzen laguntzea nortasun sexualaren oinarri bezala
- komunikabideen bitartez kontsumoaren estrategiek ezartzen dizkiguten edertasunaren arauetikiko zentzu kritikoa garatzea.
- Ikasleari munduan gizon edo emakume bezala egoteko modu pertsonalaren garapenean erantzule eta protagonista izan dadin laguntzea.
- Ikasleari bere jarrera eta balio positiboak indartzen laguntzea, kulturak sexu biologikoei ematen dizkien ezaugarriekiko independente izanez.
- Desio sexualaren jatorria eta erregulatzeko moduak ulertzea.

-Desio sexuala ezagutzea eta auto-errealizazio gaitasuna garatzea.

- Desioaren orientazioaren hainbat forma ezagutzea nortasun sexualaren orokortasunean integratzen laguntzeko, batez ere sexu bereko pertsonenganako lehentasuna agertzen dutenei.
- Desioaren asebetetzeari dagokionez, norbera eta besteak errespetatuko dituen etika sexuala garatzea.
- Bestearen behar sexualak egoki interpretatzea
- Portaera sexualak neurtzeko gaitasuna garatzea
- Sexuaren arteko komunikazioan desio sexualaren eta maitasun erromantikoaren arteko diferentzia bereizteko gaitasuna garatzea.

-Esperientzia sexualarekin lotutako afektibitatearen espazioak eratzea.

- autonomia pertsonala mantentzeko behar den segurtasuna emango duen autoestimua maila garatzea
- Ikaslearekin kolaboratzea ahal den neurrian atxikimendu estilo ziurra garatzeko (autoestima eta besteekiko konfiantza maila ona garatzea)-.
- Beste pertsonak behar ditugula eta beraien menpe gaudela onartzea.
- Behar afektibo pertsonalak argi eta garbi banatzea eta asebetetzeko behar diren gaitasun sozialak garatzea.

-Bai eta ez esatea ikastea.

- -norberaren gorputza ezagutzea
- -norberaren gorputzaz baliatzen ikastea
- -sexu hezkuntza esploratzaile bat lortzea
- -sexu hezkuntzan komunikazioa lortzea
- -harremanen inguruan hitz egiten jakitea
- -taburik gabeko hezkuntza lortzea
- -kritika, autokritika garatzea
- -jakinmina bultzatzea
- -norberaren autonomia garatzea
- -eredu integrala eta autoformatzailea lortzea

### c) Landu beharreko edukiak

- Sexualitatearen kontzeptua era zabal eta egoki batez
- Sexualitatearen inguruko komunikazioa
- Giza sexualitatea
- Nortasun sexuala, desio sexuala eta afektibitatea
- Sexualitatearen aspektu ezberdinak eta hau bizitzeko era ezberdinak
- Ekintza sexualak ekar ditzakeen gaixotasunak eta hauek ekiditeko bideak
- Gorputzaren aldaketa anatomiko-fisiologikoak (nortasun sexualaren berdefinizioan horrek duen inplikazioaren ezagutzari dagokio)
- Hiztegia, kontzeptu teknikoak, ohiko kontzeptuak, hizkuntza sexistaren analisia
- Munduaren, gizakiaren, sexualitatearen eta lotura afektiboaren ikusmolde positiboa
- Enpatia
- Gaitasun sozialak eta pertsonartekoak
- komunikazioa
- nortasuna
- heldutasuna
- autonomia
- autoestima
- giza trebetasunak

## 3.2 DROGEN INGURUKO HEZKUNTZA

Euskal Herriko historian zehar, drogen kontsumoak erabilpenaren baloreetan oinarritu egin dira. Iraultza industrialetik aurrera, XIX. mendearen bukaeran, aldaketa batzuk eman dira eta beste kultura batzuetako drogek lekua hartu dute gure gizartean. XXI. mendearen hasieran, drogen kontsumoan leku gehien hartzen duena balorea funtzionala da. Dena den, argi izan behar dugu drogen kontsumoa ziklikoa izan daitekeela, gehienbat moden arabera, ekonomiaren arabera, ... Azken 10 urteetan aldaketa ugari eman dira. Egun baditugu lehen agertzen ez ziren fenomenoak, hala nola, IHESA (honek berrikuntza ezberdinak ekarri izan ditu).

Garai bateko errealitatea ikusita, drogen erabilera handia ikusita, kontrola legearen esku uztea erabaki egin zen. Bide hau droga batzuen kontsumoaren, salerosketaren eta ekoizpenaren debekuan oinarritzen da. Baina debekuan oinarritutako politikak eta polizi kontrolak porrot egin zuten. Argi ikusten da kartzelak, isunak eta abarrek ez diotela drogamenpekotasunari behar bezalako erantzuna ematen, hots, marko juridikoak ez du soluziobiderik jartzen, alde batera uzten baitu prebentzioa, tratamenduak, gizarteratzea, ... Beraz, beste bide bat bilatu behar zen, drogekin dugun harremana modu arduratsuan eta demokratikoan lantzeko.

Egun murgilduta gauden gizartean, bizi estiloa geroz eta indibidualistagoa eta kontsumistagoa da eta ez die gazteei eta Euskal Herrian baztertutako gizarte zatiari mesederik egiten. Hots, ezberdintasun sozialak, bazterketa prozesuak, mobilizazioak ekiditeko, homogenizatzeko eta kontrolatzeko drogen instrumentalizazioa, ustelkeria eta interes ekonomiko eta politikoak, kontsumoan eta azkartasunean oinarrituriko bizitza estiloak, industria poligonoetan antolaturiko lana, aisialdia, merkatal guneak,... injustiziak eragin eta drogen kontsumo desegokiak eman daitezen errazten duten zenbait faktore dira.

Drogak gehienbat asteburuetan eta aisialdian kontsumitu egiten dira. Gutxira arte eskolan drogak eragiten duten ondorio txarrei buruz hitz egin da, gaixotasunak zerrendatuz, drogen ondorioak aipatuz,... baina zer esaten zen prebentzioari buruz?

Agerikoa da “drogen inguruko hezkuntza” kontzeptua bera ere gutxi ikusten dela curriculumean. Argi ikusten da Euskal Herriko curriculumak apustu egin behar duela pertsonen eta baita gizataldeen komunikazioan, erabakiak hartzeko edota arazoak konpontzeko. Curriculumak zera lortu behar du: ikasleek drogak aldaketa balio bezala, merkantzia bezala, ez ikustea; eta pertsonengan sinesten duen gizarte anitz, askea, errespetuzkoa bultzatuko duen kulturaren alde egitea. Drogak beti egon dira, orain ere badaude eta etorkizunean ere egongo dira eta horregatik eta horretarako drogekin bizitzen baina mendekotasunik gabe bizitzen ikasi behar dugu.

Argi izan behar dugu drogak ez direla egungo arazorik larriena, ezta bere kontsumoa ere, baizik eta kontsumo horien zergatia. Zergatia drogamenpekotasun fenomeno edo gehiegizko kontsumoa baino, gizaki ezberdinen integrazio prozesuetan ematen diren desegituraketa eta desoreka ezberdinetan datza. Hori dela eta, drogen inguruko hezkuntza norberaren garapenean ere oinarritu behar da, hots, norberaren ongizate orokorra lortu beharko du kontsumo desegokiak gainditzeko eta herri mugimenduaren bitartez gizarte aske bat lortu ahal izateko.

Hau guztia lortzeko, eta beste helburu batzuk alde batera utzi gabe, ezinbestekoa da helburu nagusitzat prebentzioa hartzea. Prebentzio koherentea, hezkuntzan oinarritua, baloretan, ongizate orokorrean, osasun psiko-fisiko-soziala lortzeko asmoz. Euskal curriculumak drogen inguruko hezkuntzari dagokionez prebentzioa hartu behar du oinarritzat. Prebentzioa drogak dauden gizarte batean drogamenpekotasunik gabe bizitzen ikastea oinarritzen da. Prebentzio hezkuntza honetan, hezkuntza formalarekin batera, ezinbestekoak dira guraso, gazte eta eragileen parte hartzea. Prebentzio bezala zera ulertzen da: drogen erabilpen edo gehiegizko erabilpena ekiditeko, kontsumoa gutxitzeko edota atzeratzeko diren neurri ezberdinak aztertzean datza. Osasunaren ikuspegitik garrantzitsuagoa da prebentzioa tratamendua baino. Prebentzioa modu jarraian eman behar da, era sistematiko batean. Ikastetxeak badira leku aproposak gaia lantzeko, alde batetik, gizarte partaide guztiak bertatik pasatzen direlako eta helburua heziketa delako, giza neurri eta teknikoetan oinarrituta.

#### **a) Drogen inguruko hezkuntza integralaren ezaugarriak**

- Drogen inguruko hezkuntza integral batek pentsamendu kritiko baterantz bideratu behar gaitu, bizi eredu ezberdinen iritzi positiboak sortuz.
- Norberaren garapenean oinarrituta, norberaren ongizate orokorra lortzera eta gizarte aske bat lortzera bideratu behar gaitu.
- Pertsonen eskubideen artean, izaki bizidunen errespetua lortu behar du
- Drogen inguruko hezkuntza integralak autoheziketa lortu behar du
- Komunikazioa landu bazterkeriarik ez emateko.
- Drogen inguruko hezkuntza kutsakorrek diren gaixotasunen inguruan, erabaki garrantzitsuak hartu ahal izateko
- Neska-mutilek behar adina baliabide izan behar dute beren erabakiak hartu ahal izateko
- Behar adina baliabide eman, gehiegizko kontsumo edo kontsumo desegokia eman ez dadin
- Drogen inguruko hezkuntzaren gaia modu objektiboan eta sen onarekin lantzeko faktore guztiak kontutan hartu behar dira.

- Drogak egon diren, dauden eta egongo diren gizarte batean mendekotasunik gabe bizitzera eraman behar gaitu drogen inguruko hezkuntzak.
- era orekatu baten bizitzen eta hezitzen ikasi behar dugu
- experimentazioan oinarritutako heziketa bat izan behar du
- -gizarteko eredu ezberdinak ezagutu beharra daukagu

#### **b) Drogen inguruko hezkuntzaren helburuak**

- Drogen inguruko hezkuntza/prebentzio hezkuntza:
  - prebentzioa heziketa arau bezala hartzea, koherentziadun ekintza prebentiboa.
  - informazioa ematea; prebentzioa tresna bezala.
  - ongizate psiko-fisiko-soziala lortzekoeta baita baldintzak hobetzeko 8bizi, lan, etxebizitza, pertsonen arteko harremanak,...) ekintza prebentiboan oinarritutako estrategiak garatzea.
  - elkartasunean, elkarrizketan, aniztasunean, talde kontzientzian, kritikotasunean eta autokritikan, konpromisoan, komunikazioan,... oinarritutako ekintza prebentiboa garatzea.
  - familiar oinarritutako prebentzioa lantzea (komunikazioan, errespetuan, sinesgarritasunean, harreman demokratikoetan,... oinarritua), komunikazio egoerak garatzeko.
- Gaia objektibotasunez eta sen onez lantzeko gazteria prestatzea
- Autoestima garatzea.
- Talde jarrera garatzea.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna garatzea.
- Sentsibilizazioa, kontzientziazioa, salaketa, ekintza komunitarioak garatzea.
- Drogadun gizarte batean bizitzen ikastea, drogamenpekotasunik gabe.
- Drogen inguruko oinarritzko kontzeptu batzuk definitzea eta drogen inguruko topikoak desmitifikatzea.
- Instituzionalizatutako drogen arazoei buruz ikasleria sentsibilizatzea.
- Gazteek bizi duten errealitatearen azterketa egitea
- Tabako eta alkoholaren eta beste droga batzuen efektuak eta ondorioak definitzea.
- Informazio iturri eta iragarki batzuen edukiak aztertu eta erabilpenean zerikusirik daukaten edo ez aztertzea.
- Drogarekin arazoak duten pertsonen ezaugarri nagusienak aztertzea eta baloratzea: arazoak ikasketetan, esaterako.
- Drogen inguruko legea aztertzea
- Droga legalen/ilegalen arteko ezberdintasunak gainditzea
- Norberaren garapenean lan egitea, beldurrak, atsekabeak, segurtasun ezak, ezberdintasunak, porrotak gaindituz.
- Gizarte berri baterantz aurrera egitea, non drogen kontsumoa kultura askatzaile, kolektibo, tolerante baten testuinguruan emango den.
- pasibatetik ateratzea
- gure osasunaren jabe egitea
- kritika, autokritika garatzea.
- jakinmina bultzatzea
- norberaren autonomia garatzea
- eredu integrala eta autoformatzailea lortzea

#### **d) Landu beharreko kontzeptuak**



- Zer dira drogak?
- Droga kontsumitzaile motak
- Droga instituzionalituak eta instituzionalizaturik ez dauden drogak
- Droga legalak/droga ilegalak
- Droga naturalak, sasi-sintetikoak, sintetikoak
- Erabilpen ezberdinak
- Arrisku mailak
- Gizarte ereduak
- Nerbio-sistema zentratean eragiten dituzten efektuak
- Kontsumitzeko moduak
- Kontsumitzeko arriskuak
- Efektu ezberdinak
- Legearen hainbat kontzeptu
- Kontsumoa, tolerantzia, mendekotasuna
- Abstinentzia sindromea
- Drogak pelikuletan, telebistan eta liburuetan
- Informazioa eskuratzeko tresnak
- Ongizate orokorra
- Autoestima
- Erabakiak hartzeko gaitasuna
- komunikazioa
- nortasuna
- heldutasuna
- autonomia
- giza trebetasunak

### **3.3 OSASUNERAKO HEZKUNTZA**

Osasunerako hezkuntza azken garaiotako berrikuntza garrantzitsuenetariko bat da, gainera geroz eta garrantzi gehiago hartzen doa hezkuntza formalean eta baita ez formalean ere. Esan beharra dago, ordea, osasunerako hezkuntza aitzineko praktika bat dela, nahiz eta ikuspegi ideologiko eta metodologikoak aldatu egin diren, osasunaren ikuspuntua ere aldatu izan delako: osasunaren definizioa gaixotasun gabeko egoera batetik ikuspuntu global batera, hots, ongizate psiko-fisiko-sozialera, igaro da.

Hezkuntzak garatu beharreko ekintzak bizi eredu osasuntsu batera bideratuak egon behar dute, indar hartu duen prebentzio ikuspuntutik. Ekintza horietan landu beharreko terminologia ere aldatu egin da: osasun-hezkuntzatik osasunerako hezkuntzara eta azken honen helburu nagusienak gizakien osasuna hobetzeko bideratuak dira:

- Prebentzioa (osasun arazoak ekidin, arrisku egoerak kontrolatuz eta hauen ondorioak ekidinez)
- Osasunaren promozioa (pertsonei gaitasunak ematea bizi eredu osasungarriak lor ditzaten)

Osasunerako hezkuntza heziketa prozesu bat bezala proposatzen da, non ikasleek norbanakoaren eta taldearen defentsa eta promoziorako eduki, jarrera eta hainbat ohitura jasoko dituzten. Hau da, ikasleak arduratsu bihurtzea, osasunarekiko jarrera positiboak garatzea eta ahalik eta bizi eredu osasuntsuena izatea lortu nahi da.

Osasunerako hezkuntza euskal curriculumean guztiz murgildua ikusi behar da osasuna bultzatzen duten ekintzen gidari bezala.

**a) Osasunerako hezkuntza integralaren ezaugarriak:**

- Osasunerako hezkuntzak pentsamendu kritiko baterantz bideratu behar gaitu, sexualitatearen inguruko iritzi positiboak sortuz.
- Norberaren garapenean oinarrituta, norberaren ongizate orokorra lortzera eta gizarte aske bat lortzera bideratu behar gaitu.
- Neska-mutilek behar adina baliabide izan behar dute beren erabakiak hartu ahal izateko
- Osasunerako hezkuntzako autoheziketa lortu behar da norberaren kalitatea hobetzeko
- estereotipo dominanteen eraginak aztertu eta horretan lan egin beharra dago
- osasuna ideia positibo batez aurkeztu behar da
- heriotzaren kontzeptua present izan behar dugu
- -komunikazio gaitasunak landu beharko dira
- -indibidualismoa tratatueta ulertu beharra dago
- -gizarteko eredu ezberdinak ezagutu beharra daukagu

**b) Osasunerako hezkuntzaren helburuak**

- Gaitasun sozialak garatzea.
- Bizitza errealitate bat bezala eta gu protagonista/arduradun garen proiektu bat bezala ikustea eta sentitzea
- Giza gorputzaren aukerak eta mugak ezagutzea, zainketa ohitura autonomo eta errespetuzkoak garatuz.
- Bizi eredu on bat lortzeko autonomia eta autoestima garatzea.
- Osasunari dagozkion oinarrizko arau batzuk garatzea: higiena, elikadura, gorputz zainketa,...
- Urritasun fisiko, psikiko edo adinakoak dituzten pertsonen aurrean sentsibilizazioa eta baztertutako talde sozialen, kultura ezberdineko pertsonen edo sexu ezberdintasunen aurrean errespetua lantzea.
- Osasunerako arriskutsuak diren egoera eta jarrerak era kritikoan baloratzea eta horiek ekiditeko bideak bilatzea eta aukeratzea.
- Komunikaziorako gaitasuna izatea.
- Arazoen ebazpena lantzea.
- Bizi eredu ezberdinak ezagutzea eta osasunarekin daukaten harremana lantzea.
- Arrisku egoerak eta osasunarekin zerikusi daukaten beste faktore batzuk aztertzea.
- Ongizaterako bidea elikadura egokiarekin eta kirolarekin osatzen dela ikustea.
- Komunikabideen jokaera aztertzea eta kritikatzeko (osasunerako ohitura txarrak).
- Egun ematen diren jarrera batzuk aztertzea.
- Osasunari kalte egiten dioten jarrera batzuk aztertzea
- Kritikatu eta iritzi ezberdinak baloratzea
- Ingurumena eta osasunaren arteko harremana garatzea
- -Heriotzaren kontzeptua lantzea
- -emozionalki arloari garrantzia ematea
- -osasunaren heziketa ikuspegi orokorretik lantzea (elikadura/sexualitatea/droga menpekotasuna/prebentzioa/...)
- -ebaluaketa kualitatiboak eta kuantitatiboak egitea
- elkar lana lantzea
- -kritika, autokritika garatzea
- -jakinmina bultzatzea
- -eredu integrala eta autoformatzailea lortzea

#### **d) Landu beharreko kontzeptuak:**

- Ardura
- Autoestima
- Erabakien hautaketa
- Bizi eredu kontzeptua
- Bizi eredu eta osasunaren arteko ezberdintasunak
- Bizi ereduaren zerikusia duten faktoreak
- Bakoitzaren bizi ereduaren autoanalisiak
- Osasunarekiko ardura pertsonala eta taldekoa
- Osasuna balore bezala
- Elikadurarekiko jarrerak
- Elikadura eta nutrizioa
- Modak
- Ohiturak
- Eredu estetiko batzuen analisiak
- Norberaren irudiaren onarpena
- Higienea
- Erritmo biologikoak
- komunikazioa
- -nortasuna
- -heldutasuna
- -autonomia
- -autoestima
- -giza trebetasunak

### **3.4 AISIALDIRAKO HEZKUNTZA**

Jakin badakigu gure inguruko errealitatea aldatzen doala. Gazteen ohituretan erreparatu besterik ez dugu egin behar. Txikitatik darabilkigun jostailuak, jolasak, ipuinak... mezu batzuk bidali dizkigute. Geroago nagusitzean astialdirako produktua desberdinak ditugu aukeran, eta egiten dugun aukeraketa horretan gure izatea osatzen joaten gara. Noski, aukeraketa egiteko orduan guran faktore askok eragina eduki dute. Gure gizartean, neurri handi batean, komunikabideek astialdi funtzioak bereganatu dituzte eta sistema mantentzeko eta indartzeko balio dute.

Gazteen bizitzaren funtsezko alderdia aisialdia izaki, aisialdirako hezkuntzak garrantzia handia hartu du. Aisialdirako hezkuntzaren helburu orokorra balore eta erreferentzia batzuk garatzea da, hots, hezteak. Ongizate eta zoriontasun irudia kanpotik bidaltzen digute, baina gurea bilatu behar dugu. Aisialdirako hezkuntzaren bitartez bizitzaren idealak, baloreak, landu ahal dira. Gizartea eraldatu, alternatiba berriak sortuz.

Aisialdirako hezkuntzan oso inportantea da norbanakoaren jarrera jorratzea: astialdia libreki bizitzea, gure nahi duguna aukeratzuz. Plazera lortzeko adierazpen libre eta sortzailea izan behar du, esfortzua egitea eskatzen duena; zentzuduna izan behar du eta oreka bilatzeko baliagarria izan daiteke. Gaitasunak garatzeko, askatasun eta autonomiaren adierazle.

#### **a) Aisialdirako hezkuntza integral baten ezaugarriak**

- Aisialdian norberarekiko eta besteekiko onarpena eta errespetua landu beharra dago, bizitza baita aisialdirako xedetariko bat. Horretarako komunikazioa lantzea eta garatzea behar beharrezkoa da

- Aisialdian askatasun osoz jokatu behar da, pentsatu eta sentitzen dena kanporatuz. Baliabide pertsonalak landu behar dira (hizkera, tonua, keinuak, erritmoa, ...) beti ere taldea, pertsona edo egoerara moldatuz, gizartekide baikara. Norberak adierazteko duen gaitasun fisiko, psikiko zein birtuala. Ahozko eta keinuzkoa nagusi dira. Sentimenduak, pentsamenduak, emozioak, iritziak, kezka... kanporatzeko ahalmena garatzea, inguruarekin komunikazioa sortaraziz, besteei helaraziz. Uste, pentsatu, sinistu egiten ditugun gauzak besteei era egoki baten ulertarazteko gaitasuna
- Bizitzan zehar barneratutako esperientziak, sentimenduak, pentsamenduak... originaltasunez eta berezkotasunez erabiltzeko gaitasuna landu beharko litzateke; esperientzia berriak egiteko, aztertze eta garatzeko asmoarekin.. Egoera ezberdinen aurrean, gauzak osotasunean ulertzeko kapaz izan behar dugu. Aisialdirako hezkuntzak bizitzan aurrera egiteko tresna, estrategia, teknika berriak garatzea erraztu behar dugu.
- Norbera eta besteenganako sentimenduak adierazteko gaitasuna lortu beharko gendun aisialdirako hezkuntzaren bitartez, jatorrasuna, ontasun eta adiskidetasunaren bidez.
- Aisialdirako hezkuntzak Aukera ezberdinen artean, eta nork bere irizpideak jarraituz, egokiena hautatzen jakiteko gaitasunera bideratu behar gaitu
- Nork bere buruaz duen balorazioa, iritzia landuz.
- Aisialdirako hezkuntzak izakera autonomoago batera eraman behar gaitu, hots besteen hitzez edo ekintzez baldintzatuta ez egoteko ahalmena lortu beharra dago, norberak daukana gehi kanpotik jasotakoa barneratu ondoren, hori iragaziz (sormen lan bat ematen da), norbere kabuz moldatzeko gaitasunen garapenerantz bideratu behar gaitu.
- Ikusi, entzun, aditu eta aztertze prozesurantz zuzendu behar gaitu, jakin-mina, autonomia, hausnarketa eta adierazpen lanabesak erabiliz.
- Aisialdirako hezkuntzan gauza eta gertakizunen aurrean interesa eta “parte hartzeko” gogoak izatearen gaitasuna garatu beharra dago, hau da, . Motibatze gaitasuna izatea, dinamikoa eta alai izatea ere, horrela, ongizaterantz bideratuz.
- Talde baten partaide izateko gaitasuna, laguntasuna, errespetua eta konpromisoa lortzera bideratu behar gaitu.
- Aisialdirako hezkuntzaren bitartez elkarrizketa, eztabaida, besteen ekarpen eta egoeren inguruan ematen den prozesutik onura bat lortzeko gaitasuna lortu beharra dago, egoera berriak sortuz eta egoerei erantzuna emanez.
- Edozein motatako emozioak sentitzeko eta esperimendatzeko gaitasuna jorratu behar da. Sentimenduak, sentazioak (maitasuna, gozotasuna, laguntasuna, ontasuna, begikotasuna, agresibitatea, biolentzia, amorrua, haserrea,...) bai arlo publikoan zein pribatuan adierazteko gaitasuna, generoaren estereotipoak gaindituz.
- Aisialdirako hezkuntzaren bitartez besteen sentimenduak identifikatu eta ulertzea lortu behar da (edo behintzat ulertzen saiatzea). Baina ez bizitzea.
- Inoren iritzia zapaldu gabe eta norberarena inposatu nahi izan gabe gai baten inguruan hausnarketa egiteko gaitasuna jorratzea.

- Aisialdirako hezkuntzak Norberak bere sentimenduak, iritziak, kezkak, emozioak... gorputzaren bitartez komunikatzeko eta azalarazteko gaitasuna landu behar du.
- Aisialdirako hezkuntzak hausnarketa garatuko du, hots, besteen eta norbere iritzi, pentsamendu, planteamendu, e.a.ei buruz gogoeta egiteko beta hartzea, patxadaz. Horren azterketa egitea, kritikatzuz (edo autokritikatuz norberarena bada), ondorio pertsonal batera heltzeko. Norberaren eta besteen ideiak, iritziak, argudioak eta portaerak batu eta aztertzeke gaitasuna. Gaiaren inguruan gogoeta egin eta ikuspuntu guztiak kontuan hartzeke gaitasuna.
- Bakoitzaren eta taldearen nortasunaren ezagupenaren bitartez erabaki ezberdinak era aske eta autonomo baten hartzeke gaitasuna lortu beharra dago
- Bakoitza bere kabuz eta kanpo eraginik gabe bizitzan aukeratzeko, erabakitzeke, sentitzeke eta pentsatzeko gaitasuna jorratu.
- Norberaren ezaugarriak ezagututa, bizitzan, gizartean, egoera ezberdinetan norbere burua defendatu eta ondo kokatzeko gaitasuna lortu behar da.
- Gizartean aisialdia parte hartzea behar du izan.
- -indibidualismoa tratatu eta ulertu beharra dago

#### **b) Aisialdiaren hezkuntzaren helburuak**

- Pentsamendu librea garatzea
- Aukeraketa ezberdinak egiteke gaitasuna garatzea
- Autoestima garatzea
- Norbanakoaren segurtasuna garatzea
- Ikasleen partaidetza sustatzea, berezkitasunetik abiatuz eta garapen integrala landuz.
- Aisiaren ezagupena eta horren inguruko hausnarketa bultzatzea, norberarengandik abiatuz.
- Aisiaren garrantziaz jabetzea, sexuen eta kulturen arteko desberdintasunak ulertuz eta generoa zein jatorri kulturalak duten eragina onartzuz.
- Aisialdi askatzailea eta eraldatzailea bultzatzea, eredu berriak sortuz.
- Aisialdirako garrantzitsuak diren baloreen lanketa egitea.
- Norberarenganako eta besteenganako sentimenduak adierazteke gaitasuna garatzea.
- Nor bere kabuz moldatzeko gaitasunak garatzea, aisialdi askeagoa lortuz.
- Ikuspegi kritikoa garatzea, ongizatearen bila.
- Azterketa aktiboak egitea.
- Besteekin errespetu osoz harremantzea.
- Elkartasuna, laguntasuna aztertzea eta horien garrantzia ikustea.
- Besteen egoeran jartzeko edo jartzen saiatzeko gaitasuna garatzea.
- Edozein motatako emozioak sentitzeke eta esperimintatzeko gaitasuna garatzea.
- Ni-aren baieztapena lantzea.
- Besteon arazoak ulertzea eta sentitzea.
- Norbera bere denboraren bizipenaz jabetzea.
- Norbera bere denboraren erabilpena kritikoki aztertzea.
- Denbora, astia eta aisia kontzeptuen inguruan hausnartzea.
- Aisialdiaren garapen historikoa interpretatzea.

- Aisialdiaren erabileran aldagai ezberdinak duten eragina: sexua, jatorri kulturala, adina, gaitasun ekonomikoa... aztertzea
- Aisialdi askatzailea bultzatzea, ekarpen eta ideia berriak plazaratzea.
- komunikazioa lantzea
- elkar lana lantzea

**d)Landu beharreko kontzeptuak:**

- Aisialdia
- Balore ezberdinak: emozionalitatea, empatia, autonomia, behaketa,....
- Denbora, aisia, astia
- Garapen historikoa
- Aldagai ezberdinak: sexua, jatorri kulturala, adina,...
- Emozioak: maitasuna, gozotasuna, laguntasuna, agresibitatea, biolentzia,...
- Eztabaidarako bideak eta erak
- Aisialdi eredu ezberdinak
- Gizarteko aukera ezberdinak
- Norberaren garapenean zerikusi duten aldagai ezberdinak: sormena, sentsibiltatea, segurtasuna, laguntasuna, independentzia, identitatea, hausnarketa, eztabaida, erantzunkizuna,...
- komunikazioa
- nortasuna
- heldutasuna
- autoestima
- giza trebetasunak